
I

ZESTOA MENDETAN ZEHAR

(Historiaurretik 1500. urtera arte)

Iñaki Azkune Mendia

Fernando Txueka Isastiren hitzaurrea

HITZAURREA

Herri baten izaerari eta historiari begira jartzen garenean, oro har, iritzi, ikuspegi eta alderdi ezberdinetatik aztertzeke eta adierazteke joera izaten dugu. Arrazoi eta faktore askoren artean, jakite eta bizipen pertsonalek eragiten eta mugatzen dute gehienetan historiaren ikuspuntu bakoitza. Horrenbestez, hauen araberrakoak izango dira norbanakoak eskain ditzakeen ondorioak ere. Era berean, herriaren historia aztertzean eta ikertzean zein talaietatik behatzen den eta zer nolako abiapuntu eta metodo erabiltzen diren, halakoak izango dira maizenik bilduko diren emaitzak ere. Beraz, zorrotasuna eta metodo zientifikoa erabiliz, ia ikusezinezkoak diren historiako gertaerak objektibotasunez aurki daitezke, eta zuzenean orokortasunean ikusten dena neurtzera iristen gara.

Gizabanakoak jaioterriko izanaren jabetza eta kosmogonia bat biltzen du beregan, eta bizitzan zehar osatzen eta moldatzen joaten da bere nitasunean eta nortasun kolektiboan. Haurtzaroko oroimen eta kantuak, etxekoei eta herriko nagusiei jasotako ohiturak, pasadizoak edo gertaerak, esaerak eta istorio zaharrak, hizkuntzaren sena eta jabetza, nerabegaroko eta gaztaroko jolas eta aldrebeskeriak, herriko festak eta lagunarteak, leku-izenak, etxe, baserri eta auzoak, erreka eta iturriak, mendi, baso eta leizeak, aro bakoitzeko lan eta ofizioak, naturaren emaitza eta uztak, jaiotza eta heriotza uneko errituak, poz eta nekeak... oro har, emeki-emeki barneratuz eta tolestuz joaten dira bakoitzaren hausnarketan eta kontenplazioan. Bizipen hauek guztiak herri kolektiboaren inkontzientean bizitzaren arbola osatzen eta norberaren oroimenean itsasten joaten dira. Aldi berean, gure herriaren historia bat ere eraikitzen dugu eta urteen joanean, urruntasunetik eta heldutasunaren distantzietatik herriminak bultzatuta aldi oro itzultzen gara sortzerriko gure oroitzenpenetara.

Beste herri handi edo ospetsu bateko historiaren aurrean, herritar orok iraganetik jaso duenarekin bere sorlekukoa ere egun zerbait izan eta badela aitortzen du eta, gainera, harrotasun jator batekin aldarrikatzen du bere herriaren izana eta historia. Gurea delako herriaren izaera, berea dugulako gure oroimena. Gizakion historia haurtzaroko eta gaztaroko memorian hedatzen dela esan ohi da, eta orenen gainetik gure jatorri xumea maite dugula goraiatzten dugu. Seneka pentsalariak zioena gogora ekarriz, «Nemo patriam quia magna est amat, sed quia sua»: *Nehork ez du maite bere sortzerria handia delako, berea duelako baizik.*

Historia, Zestoaz Iñaki Azkune Mendia herriko semeak idatzitako historia da esku artean dituzun liburuki eder eta sakon hauen muina, irakurle. Iraganik gabeko orainaldirik ez dagoenez, izan garenaren ezagutza nahitaezko baldintza dugu gaur nor eta zer garen aitortzeko. Ahalegin honen testigantza dugu aurrean, baina Azkune jaunak Zestoako nortasuna ezagutaraztetik haratago jakitera eramaten gaitu. Egiten digun eskaintza eta uzten duen altxorra, bada, zinez eskergaitzak dira. Eskerrak ematea ez ezik, ordea, sarrera hitz hauek egiteko gonbita jaso izana niretzat ohorea dela ere aitortzea dagokit, eta barka biezadate historialari eta gainerako aditu, ikertzaile eta irakurleek lan honen funtsa eta norainokoa jaso eta adierazten jakin eta asmatu ez badut.

Zestoako herriaren historia honetan, atalez atal eta orriz orri denboretako bere eremu fisikoaren emoziozko irakurketa ere egin dezakegu. Zestoarrek Urola ibaiak —antzin Legazpi deiturikoak— marraztutako ibarraren alboan hiribildu harresitua eraiki zuten, antzinako Idiakaizko aztarnategiaren bestaldean. Zubi zaharraren ondoan, Lauiturrietatik aurreraxeago, Liliko jauretze bikaina so agertzen zaigu eta Madeleine aldiko zaldien lorbidetik Sastarraingo bailarak Ekaingo haitzulora garamatza. Gailurrean, Kantauri itsasotik heltzen den ipar-haizearen bisutza besarkatuz Endoiako talaia aurkitzen dugu, Arroako bailara zaintzen.

Bidaiaria kostaldetik betidaniko errepide nagusian gorantz abiatuz, meandroen erriberetatik Iraetara sartzen da, eta arroilaren bihurtuneak igaro, bainuetxea pasa eta Lasako zabalgunera irtengo da, gehienetan Zestoako hiribildua abiadaz zeharkatu eta behatu ere egin gabe. Aldiz, begirale arretatsuak atsedenez nabari dezake herri honen espazio fisikoa indartsua dela. Bat-batean ageri zaigu Ertziñaren troska eta beste inguruko talaia karstiko ederrez inguratua. Kareharrizko hertsitasun gune horretan, zestoarrek hiribildua eraikitzea hautatu izanaren zergatia igarri dezakegu. Goragotik begiratuz eta irudimena askatuz, Zestoak zezen-plaza bat edo, agian, bi zulo txepetx habia dela ere irudi du.

Mugarritutako Zestoako lur eremua jatorriz zabala, nasaia eta luzea izan da eta da egun ere. Etumetako saroietatik Ibañarrietan barrena, San Lorentetik Beduako errenteriara heldu gaitzke, mandazain, benakero eta zamaontzien portura. Portu hau ontziola zaharraren eta erriberako azken zurginen lekukoa izan da eta mendeetako zestoarren Kantauri itsasorako eta mundurako atea.

Txiribogatik gora, Altzolarats ibarreko gune misteriotsuaren ibilbidean gal gaitzke, eta uraren doinu erakargarriak zelatan jarzen eta denboren hausnarketara gonbidatzen gaitu. Amalda haitzuloko isiltasunaren bila, bidean eraitsitako burdinolen eta jauretxe aurrien bakardadearen aurrean, historiaren intemporalitatean kokatzen gara harrizko zubi zaharraren erdian.

Udaberrian, artaldeak Iraetatik eta San Pelaiotik Aizarna igaroz, Santa Engraziako talaia magikoaren kanpai-hotsekin, arranbideetan gora doaz artzainekin Zelatun aldera. Eneolitotik mendeetako zikloen errepikapenean, kostaldetik artaldeak bildu, oroimean oraino ere enarak elkartzen ziren gisan, eta Aralar eta Urbasako saroietara udako larreen bila irudikatzen ditugu galtzada zaharretan barna.

Aizarna zaharretik, Aginan barrena maldan behera lorbidetik herrirantz doa ibiltaria, Akoa bailara mailoak hesitua, baserri eta etxaburuak apaltasun eta bakean, inxtausti, artadi eta zelai malguen artean, Lizardi datorkio hari gogora.

Bidezidor ezberdinetatik antzeko ibilaldia egin dute joandako urteetan Zestoako historiari buruz idatzi duten hainbat idazleek eta ikerlariek. Lan eder hauen egileak, eta ezagunenak baizik ez aipatzearren, ondoko hauek ditugu: Gorosabel, Aita Manuel Lekuona, Jose Maria Zuntzunegi, Joan Erentxun Onzalo, M^a Rosa Aierbe, Jabier Elorza, Miguel Sagues Subijana, Fernando Arzallus, Bizente Davila, Julian Serrano eta Jon Egiguren.

Oraingo honetan, Iñaki Azkune Mendia zestoarra da bidaia luze bezain zehatza eta sakona eginez, *Zestoa Mendetan Zehar* obra erraldoi eta eredugarri hau argitara dakarrena. Historiaurretik 1600. urtera arte Zestoako historia orokorra jasoko duen liburu-bilduma izan nahi du. Eskuetan duzun hau, irakurle, lehen zatia da: *I Zestoa Mendetan Zehar (Historiaurretik 1500. urtera arte)*.

Historiaurretik Erdi Aro hondarreraino Zestoako historiaren ikerketa-bilduma egin du Iñaki Azkunek, historiaren interesa duen orentzat edota diziplina ezberdineko ikertzaileentzat jakingarria bezain aberasgarria.

Lehen zati mardul honetan, Euskal Herriko eta Gipuzkoako historiaren bilketa- eta ikerketa-lan oparoa egin du modu didaktikoan, sintesi moduan Antzinarotik Goi Erdi Aroraino, eta testuinguru horretan kokatzen digu Zestoaren sorrera eta izana. Bere jaioterriko oroimen historikoaren eta ahozko ondarearen ezagutza eta jakinduria trebeziaz elkartu eta tolestu ditu. Aldi berean, urteetan jarduera astunetan murgildu eta hemengo eta kanpoko hainbat agiritegi arakatu ditu (Zestoa, Azpeitia, Aia, Zumaia, Azkoitia, Deba, Errezil, Tolosa, Bergara, Zumarraga, Oñati, Iruñea, Valladolid, Simancas, Sevilla -Indietako Agiritegi Nagusia-, eta abar). Iturrietara jo du, bada, eta milaka agiri eskuratu, transkribatu, kronologikoki sailkatu eta aztertu ditu zorrotzasunez eta zientifikotasunez. Horren guztiaren eta beste zenbait jakintzagairen ondorengo emaitza bikaina eskaintzen digu ikertzaile nekaezin, fin, zorrotz eta zehatz honek, asots handirik gabe ekarpen aipagarriak egiten jarraituko duena.

Hiru atal nagusi ditu lehen zati honek. Lehen atala hogeita bat kapitulutan banatua da eta «Argibide Geologikoak» azalduz zabaltzen du egile zestoarrak; ondoko kapituluetan, Historiaurretik aldiz aldi eta mendez mende Behe Erdi Aroaren amaiera arteko gertaera historikoak jasotzen ditu, eta azkenekoan, atalari amaiera emanez, «Onomastikaren iradokizunak» aurkezten ditu. Bigarren atalean, «Agiritegia» eskaintzen digu, ikerketa honetarako erabili dituen agirien transkripzioak, hain zuzen ere. Hantzen barreiatuak zeuden eskuizkribuak biltzen eta transkribatzen urte luzeetan egindako ahalegina eskergaitza izateaz gainera, ezagutzera eman eta gainontzeko ikertzaileen eskura ipini ditu. Zeregin horretan Jesus Martinez Pina jaunaren laguntza ere azpimarratzekoa izan da. Beste hainbat herritako datuekin erkatuz gero, altxorra da Azkune jaunak lehen zati honetarako jasotako agiri kopurua: XIV. mendekoak 24 eta XV. mendekoak, berriz, 250 inguru. Jadanik argitaratuak diren zenbait agiriren erreferentziak, edukiari buruzko laburpenak eta bertan ageri diren pertsona- eta leku-izenak ere azaltzen ditu. Hirugarren eta azken atalean, lehen zati honetako edukia hustuta eta sailkatuta dakusagu sarrera ezberdinetan: alde batetik, «Gaikako aurkibidea» dugu eta, bestetik, «Onomastika», Zestoako pertsona- eta leku-izenen zerrenda; zati honetan ikertzen, jasotzen eta iradokitzen denaz jabetzeko sarbide erosoak dira biak.

1383an Aizarnako lurraldeko herritarrek erregeari hiri gutuna eskatu eta onartua izan ondoren, ibarrera jaitsi ziren «los ffijos dalgo e omes buenos de la parrochia de Santa Maria d'Axarna» Zestoako hiribildua sortuz. Urte batzuk lehenago Iraurgiko Mirandako azkoitiarren antzera, hiritartasuna eskuratu zuen. Ondorioz, Arrasatetik Getariako eta Zumaiaiko portuetara zihoan merkataritzako errepide nagusiak aurrerantzean Zestoako hiribildu berriaren ateak zeharkatu ahal izango zituen, Kantauri itsasotik mundura zabaltzeko.

Eskuetan dugun liburua irekitzean, Zestoako Erdi Aroko ondare eta oroimenaren arkitektura ageri zaizkigu. Hiribilduaren lurraldea nola zehaztu eta mugarritu zen jakin dezakegu eta, halaber, herriaren bizibidea eta ekonomiaren antolakuntza aztertzeko garrantzi eta interes handiko 57 ordenantzak nola eratu ziren.

Aldi berean, Zestoak inguruko herriekin izandako gorabeherak eta harreman interesgarriak ezagutarazten dizkigu egile zestoarrak: Orreagako ospitalearekin eta Zumaiaiko hiribilduarekin izandakoak, Aizarnazabalgo kolazioarekin, Debako kontzejuarekin, eta abar. 1394an Zestoako hiribilduak eta Getariako herriak sinatu zuten ermandade itunaren eta beste hainbat hitzarmenen berri ere ematen digu. Orobat, bizimolde eta baliabideak, salerosketak, eskubideen afera eta beste hamaika gertaera, auzi eta kalapita ere jasotzen ditu: Oikiako eta Aizarnazabalgo elizetako patronatuak eta hamarrenaren eskubidea Iraetako jaunaren asmoen aurka; Santa Engrazia ermitaren induljentziak; arrantza, merkataritza, garraio eta nabigazio kontuak (Beduako erreteriarri eta portuari buruzko auziak; ibaiko arrantzaren inguruko eskubideak; Lasaoko lurretan, sare eta trainekin ibaiko arrantzaren arautzea; mea eta burdina garraiatzeko Urola ibaian presak kendu eta konportak egitearen ingurukoak; Flandriarekin oihalen merkataritza; eta abar); burdino- len eta mendien ustiapena; Ernio inguruko saroiak ustiatzeko Errezilgo unibertsitatearekin hitzarmena; Etorrako saroiaren erosketak; Liliko jauna Sirakusako (Sizilia) gobernariari buruzko aipamenak; eta abar.

Obra honekin, Zestoako historiaren materialak XVI. mendera arte (orotara XVII. arte) paratuak uzten dizkigu, besteak beste, gaurko eta datozen belaunaldietako ikerlarien onurarako.

Orrialde asko dituzte Iñaki Azkune Mendia zestoarraren curriculumak eta bibliografiak. Asko eta mamitsuak. Hemen eta lerro labur hauetan, bada, bere bizitza azaltzea eta argitalpenak (narrazio historikoak, itzulpenak, hainbat pertsonaiaren biografiak, artikulak, etab.), hitzaldiak, ikastaroak eta euskal kulturari egindako ekarpenak zerrendatzea luze joko liguke. Aipatu nahi genuke, halere, ingeniari tekniko eta mekanika-ikasketak egin eta bere lanbidea laurogeiko hamarkadaz geroztik Elhuyar elkarte eta aldizkariari lotua izan duela. Jakintza-arlo ezberdinak landu ditu eta, besteak beste, Euskal Herriko zezenketari buruzko ikerketa egin du, *Zezenak Euskal Herrian* (1989) izenburupean. Bere idazle ibilbidearen hastapenetan narrazio historikoak idatzi zituen, hala nola, *Eneko Aritza* (1975), *Amaia* (1975) eta *Katalin Erauso* (1976). Itzulpengintzan ere aritu da eta Maquiaveloren *Printzea* (1986) euskaratu du; zientzia eta pentsamenduaren arloan, berriz, François Jacob-en *Posiblearen jokoak* (1990), Max eta Hedwig Born-en *Zientzia eta kontzientzia aro atomikoan* (1990) itzuli ditu. Orobat, Darwin-en gaineko ikerketaren egilea da, *Charles Darwin. Ebo- luzioaren profeta*. Testu liburuen idazketan eta hiztegietan ere parte hartu du. Artikulu ugari ere idatzi du, zientziaz, ingurumenaz, teknologiaz, lexikologiaz, eta abar; halaber, zenbait zientzialariren biografiaz (Einstein, Francis Bacon, Torriceli, Pascal, Andre Mari Ampere, Ohm Georg, Robert Koch, Agustín Louis Cauchy, Edwin Armstrong, Marie Eugene Dubois, Alexander Fleming, John Dalton, Denis Diderot, Gustav-Gaspard Coriolis, etab.). Elkarlanean ere hainbat lan argitaratu ditu: *Ezagutu Ipar Euskal Herria* (1992), *Oinarrizko atlas geografiko eta politikoa* (1995), *Zientzia biografien bidez* (1995), eta abar.

Osotasunean, Errenazimentuko gizona dirudi Azkune jaunak. Unibertsaltasun eta jakintza entziklopedikoa duen humanista eta euskaldun zaharra dugu. Iturri zaharreko euskararen ezaguera berezkoa duen gizona. Hizkuntza kontuetan ez ezik, bistan da historian, pentsamenduan, zientzian, teknologian eta beste hainbat arlotan ere jakituna dela. Maite ditu poesia («Marinel galduaren balada» lekuko, Benito Lertxundik musikatu eta abestua), bertsoak, eta trikiti-doinuak ere (Loiolako Herri Irratian duela berrogei bat urte aritu zen Joan Joxe Eizagirre “Marduxarra” soinu-jolearekin, Martzelina Zubizarreta panderojolearekin eta Joan Mari Aranberri lagun maitearekin kantari); zer esanik ere ez, natura, mendiak eta basoak, musika eta artea.

«Ez dakienak zer bilatu nahi duen, aurkitzen duena ez du ulertuko», esan ohi da. Jakinduria zabaleko eta ofizio handiko Azkune jaunak ondo zekien hori, lanaren hastapenetik garbi baitzuen zer bilatu nahi zuen. Bere Zestoa maitea errotik eta benetan ezagutzeko, beste herri, zientzia eta kultura unibertsalaren jakin-mina izan duela bere biografia luze-zabalak erakusten du. Egiakotzat jo

daiteke, bada, bere herria besterik ezagutzen ez duenak ez duela benetan bere herria ezagutzen. Bere urte luzeetako agiritegi-tako indusketa lanak ikertzaile finaren sena agerian uzten du. Hitza hizkietatik osatzen den gisan, lan historiko erraldoi honetan banan-dua dagoena biltzen eta argia zabaltzen irakatsi digu. Lan hau Erdi Aroko hargin-maisuek euren eraikuntza nagusiak eraikitzen zituztenen antzera jaso du, eta guztia sostengatzen duen gangaren giltzarria bere ezkutuko zigiluarekin zizelkatu digu, irakurtzean igartzen bageneke. *Post tenebras lux*, obra honekin ereduaren ataka ireki du. Egileak hori entzutean, jakintsuen zuhurtziaz eta apal-tasunez honela errepikatuko liguke: *Baina nik letreiatzen besterik ez zekiat!*

Beste maila batean bada ere, Ananda Kentish Coomaraswamy indiar pentsalariak garai modernoek gogoeta eginez zera zioen: egungo gizartean zenbat eta handiagoa den ezjakintasuna, orduan eta sakonagoa egiten dela Erdi Aroari buruzko iluntasuna. Horre-zaz gainera, gure ustez, Erdi Aroaren denbora historikoaren irakurketa lineala egitea ere izan liteke iluntasun horren gakoa. Gure herrietako Aro zaharrak, intenporalitateko eta garai bateko gertaerak eta kontuak egungoak bailiran ere begiratzen ditugu. Historia-ko mitoak eta ipuinak aipatzean, emozio intelektuala pizten da hauek gaurkotze batera ekarriz, eta izanaren oroimena berriztatzen dugu garai bateko denboren zikloetan horrela gertatu izan balira bezala. Gizaki *tradizionalak* duen ezagutza iraganean proiektatze-rakoan, mitoa bizirik du oroimenean eta horregatik modernitatearen irakurketa lineal huts hori gaindi lezake historiari ere begira-tzerakoan.

Euskal Herriko historia eta, aldi berean, gure herrien izana berreskuratzea nahitaezko lana dugu, joandako mende eta hamarka-detan historiografia nagusiak egiatzat ezarritakoak (1200eko Gipuzkoako konkistaren memoria eta kostaldeko hiribilduen nafar fun-dazioaren jatorria lekuko) ikertu ostean, maiz zalantzarakoak eta okerrak izan direla ere ikusi baititugu. Denbora ilunetako historia idazterakoan, sarritan, erraz erortzen gara iraganeko testuingurua nolakoa izan zen ezagutu gabe, eta askotan egun nahi genukeen pentsamenduen eta mitoen arabera historia berreraiki nahiaren tentazioa ere azaltzen da, erromantikotasun existentsial tanta bate-kin borobildua, eta hori ere ez da arrazoizkoa.

Egungo munduaren globalizazioak, zientzia aurkikuntzak, internet, komunikazio-tresna modernoak, teknologia berriak... guz-tiaren aurrean gure herri *zahar* honek mende honetan bizirik iraun nahi badu, herri gisa une oro erantzunak emanez lortu beharko du, mendez mende orain arte jakin izan duen eran. Euskaldunoi dagokigu egungo munduaren azterketa erreala, ez emozionala soi-lik, adimentsu egitea, eta zuzenenak edo egokienak diren urratsak hautatzeko gaitasuna izatea, gure kultur izaeraren ganga sosten-gatuko duten imara eta zutabeak jaso ditzagun. Hori gauzatzeko, sasi zikinak erre eta bide egoki eta komuna ere eraikitzeko, gure Xabier Lete poetak zioenaren antzera amestuz, lehenik herri honen historiaren oroimenaz eta ezagueraz baliatu behar dugu.

Joan berria zaigun Emeterio Sorazu antropologo eta historiagileak, maiz herri-jakintzatik jasotakoa ondoko galdera garden haue-tan laburbiltzen zuen: *Nola jakingo duzu non zauden ez badakizu nondik zatozen? Eta nola arraio jakingo duzu nora zoazen ez badakizu non zauden?* Norbanakoari legokioke erantzutea.

Bizitza eta historia iraganera begiratzuz uler daitezke, baina ulertuz eta biziz soilik aurrera egin genezake, Søren Kierkegaard pentsalariak zioen moduan. Hausnarketarako denbora eta espazioa hartu beharra dugu, lan honen egileak hainbatetan trebetasunez gomendatu bezala.

Iñaki Azkune azken urte hauetan Ertxiña mendiaren magalean, bere etxekoen baratze zaharrear sagar eta gereziondoak meta-tzen eta aldatzen joan da. Nekazari-lan hau, agian, bere gaztaroko zestoarren gerezi lapurretako ohitura gogoratzeko besterik ez du egin edo, beharbada, egun gure herrietako gazteen artean galdua dagoen usadioa berritzeko asmoz. Baina, seguru asko, Azkune jau-naren nahia da belaunaldi berriek bere herriko zuhaitz handi honetatik, «gereziak» ez ezik iraganeko historiaren irakaspenak ere hartzen eta etorkizunean berraldatzen ikas dezaten. Horrela gertatuko ez balitz, esperantzarik galdu gabe ihardetsiko liguke: *Azke-na datorrenak harrapatuko dizkik!*

Egin beharrekoa eta agi daitekeena, etor bedi.

Fernando Txueka Isasti

Usurbilen, 2011ko udaberriaren atarian